

DEIALDIAREN OINARRIAK 2 LANGILE KONTRATATZEKO, ALDI BATERAKO LAN KONTRATUEKIN, ETA HAUTAPEN PROBEN BITARTEZ, BERAKO TURISMO BULEGOETAN PUBLIKOARI ARRETA ETA INFORMAZIOA EMATEKO UDA GARAIAN.

1. oinarria. Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da herriko zein Ibardingo turismo bulegoetan publikoari arreta eta informazioa emateko 2 langile kontratatzeke, aldi baterako lan kontratuekin, eta hautapen proben bitartez.

Lansaria: lanpostuak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen C mailari dagozkion oinarritzko lansariak izanen ditu, gehi %12 (mailako osagarria), Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren arabera (1.576,39 euro gordin hilean).

Kontratuaren iraupena: 3 hilabete (2022ko ekainaren 13tik irailaren 12ra bitarte).

Kontratazioak egingo dira Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 7ko 251/2018 Ebazpenaren baitan (interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki entitateei emanen zaizkien dirulaguntzen deialdia).

2. oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.

Parte har dezakete, orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetao herritarren ezkontideek, edo aipatutako nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatuetao herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, hortik gorakoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gaintutia ez izatea.

c) Batxilergoko tituluaren jabe izatea edo Lanbide Heziketako 2. graduoko tituluarena, edo horien baliokidea, edota eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen titulu eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana.

f) Euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatzen duen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailako titulua edo baliokideren bat izatea. Titulazio hori ez daukatenek eskatutako hizkuntza mailaren proba bat gaindituta frogatu ahaliko dute ezagutza hori, Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz (3. xedapen iragankorra). Proba hori Foru Komunitateko Administrazioak egingo du eta interesdunek deialdian parte hartzeko eskabidea aurkezterakoan eskatu beharko dute (I. eranskina).

g) Enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea Nafar Lansareko enplegu bulego batean eta dagokion zundaketan sartua egotea. Kontrataziotik kanpo geldituko dira Berako Udalak ekitaldi berean edo aurrekoan hiru hilabeteko eperako edo hortik gorako beste epe baterako 1. oinarrian aipatutako deialdian edo antzeko edozein deialdiren babesean kontratatu dituen pertsonak.

3. oinarria. Eskabideak.

3.1. Eskabideak Berako Udaletxeko Erregistroan aurkeztu behar dira edota 39/2015 Legeko 16.4 artikulua jartzen dituen baliabideak erabilia.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar diezazkioten eskabideari, ziurtatu aurretik. Gainera, Berako Udalari jakinarazi beharko zaio posta elektronikoz (bera@bera.eus); betiere, aurkezteko epearen egun eta orduen barrenean.

3.2. Eskabideak deialdi honen I. eranskinean agertzen den ereduaren arabekoak izanen dira, eta haietan izangaiek adierazi behar dute betebeharrak guzti-guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

3.3. Epea: Interesdunek eskabideak aurkeztu ahaliko dituzte **2022ko maiatzaren 31ra arte**. Egun hortako ordu hauetan bukatuko da epea:

- Aurkezpen pertsonala Berako Udaletxeko Erregistroan: **13:30**.
- 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko baliabideak erabiliz aurkeztuz gero: **23:59**.

3.4. Eskabidearekin batera dokumentazioa konpultsatua aurkeztu behar da: NAN, 2 c) eta f) oinarrietako tituluak (edo titulu horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskuratzeko baldintzak betetzen dituela frogatzen duen agiria) eta enplegu txartela.

4. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

4.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

- Lehendakaria: Aitor Elexpuru Egaña, Berako Udaleko alkatea.
- Ordezkoa: Patxi Castillo Graciarena, Berako Udaleko zinegotzia.
- Mahaikidea: Raul Iglesias Alvarez, Berako Udaleko kultur koordinatzailea.
- Ordezkoa: Belen Mutuberria Vergara, Lesakako Udaleko kultur koordinatzailea.
- Mahaikidea: Irantzu Pastor Ordoki, Baztan-Bidasoan turismoa garatzeko turismo teknikaria, Cederna-Garalur.

Ordezkoa: Itxaso Aleman Damboriena, Cederna-Garalurreko garapen agentea.
- Mahaikidea: Gemma Mitxelena Agesta, Berako Udaleko administraria.
Ordezkoa: Miguel José Belarra Tellechea, Berako Udaleko idazkaria.
- Mahaikidea, langilegoa ordezkatuz: J. Martin Leiza Larralde, Berako Udaleko albientea.
Ordezkoa: Jose Javier Taberna Agesta, Berako Udaleko zerbitzu anitzetako enplegatua.

4.2. Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe. Idazkaria izendatuko da kideen artean. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake proba batzuetan nahiz guztietan.

5. oinarria. Probak.

5.1. **Euskara proba.** Hautapen probak hasi baino lehen, deialdi honetako 2 F) oinarrian eskatutako baldintza agiriarekin egiaztatu ez dutenek egin beharko dute euskara proba.

Proba baztertzailer horretan azterketak egin beharko dira pertsona horrek deialdi honetan eskatzen den hizkuntza-mailari dagokion gaitasuna duen ala ez egiaztatzea xede. "Gai" edo "ez gai"tzat hartuko dira hautagaiak. Proba gainditu beharko da gainerako probak egin ahal izateko. Egitera aurkezten ez direnak baztertuak izango dira.

Ondoren, hautapen probak egingo dira.

5.2. **Frantseseko ahozko proba:** hautagaiak hizkuntza horretan B2 maila duela kreditatzeko ahozko proba egingo da.

Epaimahaiak erabakiko du probaren iraupena. Puntuazioa: **10 puntu** gehienez ere. Proba ez da baztertzailer izanen.

5.3. **Berariako ahozko proba:** Bera eta eskualdeko turismo-baliabideen ezagutzari buruzko ahozko proba egingo da euskaraz.

Epaimahaiak erabakiko du probaren iraupena. Puntuazioa: **20 puntu** gehienez ere, honela banatuak:

- Bera eta eskualdeko turismo-baliabideei buruzko ezagutza maila: 10 puntu arte.
- Gizarte eta komunikazio trebetasunak (komunikazio estiloa, soltura, gorputz hizkuntza, ahots-doinua, inprobisazio gaitasuna, autoestimua, bizitasuna, gogoberotasuna): 10 puntu arte.

Proba ez da baztertzailer izanen.

6. oinarria. Kontratazioa egiteko izangaien zerrenda.

6.1. Izangaien kalifikazioa bukatuak, epaimahaiak aldi baterako kontratazioa egiteko izangaien zerrenda argitara emanen du Berako Udaletxeko Iragarki Ohelean eta web orrian, lortutako puntuen arabera.

6.2. Berdinketa egonez gero, berariazko proban lortutako puntuazioaren arabera erabakiko da. Hala ere berdinketa mantenduz gero, jendaurreko zozketa egingo da.

6.3. Izangaien zerrendan hurrenkera jartzeko kontuan hartuko da hautapen probetan lortutako puntuazioa, handienatik hasita.

6.4. Epaimahaiak Alkatetzari bidaliko dio prozeduraren ostean osatutako zerrenda, aldi baterako kontratazioak egin ahal izateko.

7. oinarria. Datuen babesari buruzko informazioa.

Datuen tratamenduaren arduraduna:

Identitatea: Berako Udala.

Helbidea: Herriko Etxeko plaza 1, 31780, Bera.

Telefonoa: 948 630005.

Posta elektronikoa: bera@bera.eus.

Datuak babesteko ordezkaria: dpd@bera.eus.

Helburua: Enplegu deialdiak kudeatu, botere publikoen erabileraren baitan.

Oinarri juridikoa: 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.

Datuak mantentzeko denbora: Datuak gordeko dira aipatutako helburua lortzeko behar den denborean eta Udalak tratamenduari buruzko erantzikuzunak dituen bitartean. Gainera, Artxibo eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean araututakoa bete behar da.

Datuen hartzaileak: Datuak eman ahalko dira epaile eta auzitegiei, indarrean dagoen legedia konplutuz, eta argitaratuko dira udal web orrian eta iragarki-oholetan, deialdian ageri den bezala.

Eskubideak: Sarbide, zuzentze eta baliogabetze eskubideak lehen aipaturiko helbidea erailiz. Gainera, erreklamazioa aurkezten ahal da Datuen Babeseko Espainako Agentziaren aurrean: Jorge Juan, 6, 28001 (Madril) edota www.agpd.es.

8. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen oinarrien aurka edo berau aplikatzeko egintzen aurka, hautara, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo errekurritu nahi den ekintza jakinarazten denetik hasita.

Gainera, epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkezten ahalko da, berako Udaleko alkate udalburuari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi ondotik.

Bera, 2022ko maiatzaren 20a.

Alkatea,
Aitor Elexpuru Egaña.

ERANSKINA
ESKABIDE EREDUA

DATU PERTSONALAK:

Izen- abizenak:.....
NAN edo baliokidea: Jaiotze data:.....
Non jaioa:.....(.....) Nazionalitatea:.....
Helbidea:.....
Herria:.....Probintzia:..... Posta kodea:.....
Telefonoak:..... Posta elektronikoa:.....

ADIERAZTEN DU:

- Berako turismo bulegoetan publikoari arreta eta informazioa emateko 2 langile kontratatzeko, aldi baterako lan kontratuekin, eta hautapen proben bitartez, deialdian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, ezarritako denboran eta moduan.

- Deialdian parte hartzeko eskatutako dokumentazioa erantsi duela.

- Euskararen mailako ezagutza frogatzeari dagokionez (markatu bidezkoa dena):

- Euskararen C1 mailako ezagutza izatearen ziurtagiriaren kopia kautotua gehitzen diola eskabide honi.
- Euskararen C1 mailako ezagutza frogatzeko proba egitea eskatzen duela.
- Desgaitasuna duela eta, hortaz, behar dituen egokitzapenak eskatzen dituela, haietarako arrazoiak adierazita (beste orri batean zehaztuko dira eskatutako egokitzapenak eta eskaeraren arrazoiak).
- Desgaitasuna frogatzen duen dokumentazioa eransten duela, erakunde eskudunak emana.

Aipatu hautapen prozesuan onartua izatea ESKATZEN DU.

(Eguna eta sinadura)

Datuen babesa.–Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betez, aditzera ematen zaizu inprimaki honetan ematen diren datu pertsonalak hautapen prozeduran Udalak dituen eskumenak erabiltzeko baizik ez direla erabiliko eta Udalaren datu basea osatzen duten fitxategiei batuko zaizkiela. Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta horien aurka jotzeko eskubideak Erregistro Orokorrari zuzendurik erabiltzen ahalko dituzu.